



GIZALAB FUNDAZIOA, POLITIKA SOZIALEKO BERRIKUNTZA ZENTROA

Sozietatearen izena

Gizalab Fundazioa, Politika Sozialeko Berrikuntza Zentroa

IFK

G1026814

Izaera

Fundazioa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Fundazioa 2012ko martxoaren 9an sortu zen laguntza-ongintzazko eta laneko izaerarekin, hirurogeita bost fundazioren bat-egitearen ondorioz. 1673an eratutako Cecilia Sarmiento Fundazioak gainerakoak xurgatu zituen, eta izen horren orde, Gizalab Fundazioa Politika Sozialeko Berrikuntza Zentroa izena hartu zuen. Prozesu hori onartu zen eta Fundazioen Erregistroan inskribatu zen [«Centro Innovación en Política Social Gizalab Fundazioa» erakunde xurgatzaileak \(lehen «Cecilia sarmiento Fundazioa» zena\) «Matias Isasi Fundazioa», «Francisco de Gamiz Fundazioa», «Agregación de Fundaciones Benéfico Particulares de Álava» eta «Agregación de Fundaciones Benéfico-Particulares de la provincia de Gipuzkoa» fundazioak xurgatzearen ondoriozko bat-egitea onartzen eta fundazioen erregistroan inskribatzen duen eta fundazio xurgatzaileak erabakitako estatutu-aldaketa, patronoen kargu-uztea eta patrono berriak izendatzea, eta fundazioko patronatuaren barruan karguak banatzea onartzen eta inskribatzen duen Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2012ko ekainaren 19ko AGINDUA](#) betez.

Sail-atxikipena

Enplegua eta Gizarte Politikak.

EJSN

7220 Ikerketa eta garapen esperimentalak giza eta gizarte-zientzietan.

Fundazioaren xedea eta helburua

Gizarteratzeko, integrazioko, gizarte-zerbitzuetako eta aktibazioko arloetan berrikuntzarako estrategia eta jarduerak sortzea eta bultzatzea du helburu nagusizat, parte hartzeko, gobernantzako, gizarte-ekimeneko eta hirugarren sektorea garatzeko zeharkako ardatzei jarraiki.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak.

Fundazio-zuzkidura

933.679 €

Fundazio-zuzkiduraren osaera

2012ko abenduaren 31n, Gizalab Fundazioaren fundazio-zuzkidurak bi osagai ditu: batetik, bat-egitearen egunean Cecilia Sarmiento Fundazioak zeuzkan funtsak, eta, bestetik, 2012ko martxoaren 9an bat egindako gainerako fundazioek zeuzkaten funtsak.

Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak kudeatuko ditu. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

Juan María Aburto Rique jauna	Presidentea. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.
Iñigo Pombo Ortíz de Artiñano jauna	Presidenteordea. Gizarte Gaietako sailburuordea.
Lide Amilibia Bergaretxe andrea	Diruzaina. Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
José Luis Madrazo Juanes jauna	Familia eta Komunitate Politikako zuzendaria.
Imanol Zuluaga Zamalloa jauna	Kabineteko zuzendaria.
Iñaki Arrizabalaga Ormaetxea jauna	Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendaria.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	801.161 €
Ondare garbia	766.558 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	1

Sozietatearen helbidea

Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Webgunea

www.gizalab.org